

UEU

Urteko Txostena

2017



- 4 SARRERA**
EU
Hitzarmena JAKIN eta Usurbilgo Udalarekin
UEU, KORRIKA
UEUren eta Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren arteko hitzarmean
UEU eta Euskal Wikilarien Kultur Elkarte, elkarlanean
UEU Elhuyar Zientzia Azokarekin bat
Juan San Martin beka
Bernat Etxepare Lizeoa eta UEU, elkarlanean
UEUko lantaldea, Talde Eragilea eta sailburuak ezagutzera ematen
Sailburuen Biltzarra
Nafarroako Lagunak mintegia
- 5 JARDUERA AKADEMIKOA**
"Euskararen biziberritzea" ikastaroa Gasteizen
Heziketa afektiboa genero-ikuspegitik I. Proiektua
Udaberriko ikastaroak
LUHI mahaingurua
IKERGAZTE 2017
Udako Ikastaroak: #ELKAR EKIN
"Ingurune digitalaren ikerketak Euskal Herrian" jardunaldia
UEUren ikasturtearen hasiera
UEUK 3 Berezko Titulu sustatu ditu 2017/2018 ikasturtean
Udazkeneko ikastaroak
"Nafar Estatuaren historia (VIII.-XVI. mendeak)" ikastaroa
2017ko MoodleMoot Euskadi UEUK antolatu du
Geogebra-ren erabiltzaileen I. topaketa
"Geomatika eta Inteligentzia Espaziala 2017" jardunaldia
PREST_GARA
"Bullyngaren mugak gainditzen" jardunaldia
#Kafetapintxo 2. topaketa: sarean zientzia dastatzen
- 8 ALGITALPENGINTZA**
10 liburu berri
UZTARO aldizkariaren 100. zenbakia
ALDIRI aldizkaria
OSAGAIZ aldizkaria jaio da
UEUK bere DOI zenbakia erregistratu du
Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsal
Buruzkak liburutegi digitala
SARAKo azokan egon gara
Jose Ramon Etxebarriaren omenezko liburua martxan
Durangoko Azoka #52DA
- 14 INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK**
Artizarra
Unibertsitatea .net ataria
INGUMA datu-basea
TESIKER
Euskarabildua #6 - 2017 edizioa

Sarrera

EU

UEUren helburu estrategikoa da Euskal Unibertsitate euskalduna, nazionala eta herrikoia sortzea. Lan horretan Euskal Unibertsitatearen Elkartearen laguntzaz on-line unibertsitatearen ildoak lantzen egon gara 2017an, bai Eusko Jaurlaritzarekin bai UPV/EHUREkin.

Euskarazko graduak on-line emateko aukeraren leerroari dagokionez, urteko helburu nagusia harremanak bideratzen jarraitzea izan da eta sozializazio-lanekin jarraituz, lefroarentzat babes-talde sendoagoa osatu nahi izan dugu. Harremanak bideratu arren, tamalez ez dugu emaitzarik lortu.

Horrez gain, lerro honek behar duen garapena gizartearen beharrari lotuta dago. Bide horretan, jardunaldi batzuk antolatu ditugu ekainean Bilbon, gaia gizarteratzen jarraitzeko: "Ingurune digitalen inguruko ikerketak Euskal Herrian". Udako Ikastaroen irekiera-ekitaldia egiteko erabili ditugu jardunaldiok.

Bestalde, hainbat unibertsitate eta erakunderekin harremanak izan ditugu eta hitzarmen berriak sinatu (Euskaltzaindiarekin, adibidez).

Hitzarmena JAKIN eta Usurbilgo Udalarekin

2017ko martxoaren amaieran UEUK, JAKINEK eta Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu dugu. Horren arabera, **UEUren udako ikastaroetan Usurbilen jardunaldi bat egiteko elkarlana bideratu dugu hurrengo hiru urteetarako. Udalaren nahia kultura hauspotzea da, ekarpena egitea euskal gizarteari. 2017ko jardunaldiak uztailaren 13 eta 14an burutu dira "Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua" izenburupean.**

UEU, KORRIKA

UEUKo zuzendari Iñaki Alegriak eta Ines Castiella nafar bazkideak eraman dute lekukoa Iruñean, UEUKideen laguntzaz. Une hunkigarriak izan dira, zalantzarik gabe.

UEUren eta Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren arteko hitzarmena

UEUK eta Nafarroako Hezkuntza Departamenduak elkarlan-hitzarmena sinatu dugu 17 urte ondoren. Akordio horren barruan, UEUK **hainbat ikastaro antolatuko ditu, eta, horretaz gain, Ezpeleta jauregia Iruñeko udako ikastaroen egoitza iraunkorra izatea** adostu dugu. Hitzarmenaren aurkezpenean **María Solanak**, Nafarroako Hezkuntza kontseilariak, **Nekane Orozek**, Unibertsitateen zuzendari orokorrak, eta **Iñaki Alegriak**, UEUKo zuzendariak, hartu dute parte.

UEU eta Euskal Wikilarien Kultur Elkartea, elkarlanean

UEUK eta Euskal Wikilarien Kultur Elkartea (EWKE) lankidetzak hitzarmena sinatu dugu urrian. Akordio horrekin EWKEk duen hezkuntza-programan garrantzi berezia eman nahi zaio euskarazko edukiak eskuratzeko erraztasunari. Hiru hilabeteko epean, UEUK kudeatzen duen Buruxkak.eus guneko materialarekin lan egin du EWKEk.

UEU Elhuyar Zientzia Azokarekin bat

UEUtik gure lankidetzak eskaini dugu gazteentzako Elhuyar Zientzia Azoka 2017-2018 egitasmoa indartzeko. Ekimen horretan, 12-18 urte bitarteko gazteek, talde txikitan, ikerketa-proiektu bat edo proiektu teknologiko bat garatuko dute ikasturtean zehar, eta 2018ko apirilaren 21ean Bilboko Plaza Barrian egingo den Zientzia Azokan aurkeztuko dute. Gure bazkideak eta lankideak ekimenean parte hartzea animatu ditugu.

Juan San Martin beka

Eibarko Udalak, UEUren laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, haren izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du bi urterik behin. Aurten XIII. beka-deialdia egin dugu, ARKEOLOGIA gaia ardatz izan duelarik. Epaimahaiak aurtengo edizioa hutsik geratzea erabaki du.

Bernat Etxepare Lizeoa eta UEU, elkarlanean

Baionako **Bernat Etxepare Lizeoak** "Hazten gaitu, hazten dugu" kanpaina abian jarri zuen 2016an ikasle gehiago jaso ahal izateko kolegio berri bat eraikitzeko. Bernat Etxepare Lizeoa da Ipar Euskal Herrian irakaskuntza euskaraz eskaintzen duen lizeo bakarra, eta, UEU ere euskarazko unibertsitate-proiektu euskalduna izanik, kanpaina horretan bidelagun izatea erabaki zuen zabalkundean lagunduz eta diru-ekarpena eginez. Era berean, UEUren eta lizeoaren arteko elkarlana estutu da, eta lehen pauso bezala, 2018ko udako ikastaroak lizeoan bertan egingo ditugu.

UEUko lantaldea, Talde Eragilea eta sailburuak ezagutzera ematen

UEUren egituraren lanean gabiltzan pertsonak ezagutu eta aitortza egiteko asmoz, "Nor da Nor" atala zabaldu dugu webgunean. Bertan, UEUko lantaldeari, Talde Eragileari eta sailburuei buruzko informazioa agertzen da.

Sailburuen Biltzarra

Azaroan egin dugu Sailburuen Biltzarra. Bertan, UEUko sailen eta egituraren arteko koordinazioa landu, esku artean dauden proiektuak eztabaidatu eta sailen arteko harremanak sustatzen ditugu. Argazkian, goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Oskar Arantzabal

(Ekonomia), Nekane Intxaurtza (Argitalpengintza), Ane Sarasua (Idazkari Nagusia), Libe Solagaistua (Natura Zientziak), Mikel Etxebarria (Natura Zientziak), Aitor Salaberria (Natura Zientziak), Rakel Gamito (Pedagogia), Josu Lopez Gazpio (Kimika), Anartz Ormaza (Arkitektura), Idoia Orueta (Musika), Ruben Urizar (Hizkuntzalaritza) eta Iñaki Alegria (Zuzendaria). Beheko ilaran: Irati iciar (Jarduera Akademikoa), Gorka Etxebarria (Historia), Nerea Pagaldai (Natura Zientziak), Olatz Pereda (Natura Zientziak), Edurne Larraza (Informatika), Haritz Azurmendi (Filosofia), Xabier Landabidea (Komunikazioa), Arkaitz Zarraga (Glodidaktika) eta Idoia Torregerai (Komunikazioa). Bilera emankorra izan zen benetan.

Nafarroako Lagunak mintegia

Abenduan Nafarroako Lagunak mintegia egin dugu Iruñean helburu hauekin:

- Azken bi urteetan lortutakoak aztertu eta jasotako emaitza positiboek jarraitutasuna emateko elkarlanak sustatzea.
 - Hezkuntzarekin dugun elkarlanari erantzuteko ikastaro/jarduera berrien ideiak jasotzea.
 - Bazkietza aktibatzea, gazteak erakartzea.
- Mintegia bazkideei, IKERGAZTEko nafar ikertzaileei, nafar irakasleei, eta, oro har, gurekin elkarlanean ari direnei zabalik egon da eta ekarpen ugari jaso ditugu bertan.



Jarduera akademikoa

“Euskararen biziberritzea” ikastaroa Gasteizen

Oihaneder Euskararen Etxeak, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta UEUk “Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen” ikastaroa antolatu dugu Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. Urtarriletik maiatzera bitartean hilean saio bat egin da eta bertan 27 pertsonak hartu dute parte. Ikastaroaren helburuak hauek dira:

- Euskararen biziberritzearen orain arteko ibilbidearen hausnarketa kritikoa egitea askotariko esparru eta ikuspegietatik.
- Euskararen normalizazioan aurrera egiteko diskurtso eta praktika berriak proposatzea, esparruz esparru.
- Euskararen biziberritzearen ikuspegi globala lantzea, esparruen arteko sinergiak bilatuz.

Heziketa afektiboa genero-ikuspegitik I. Proiektua

Haurreskolen Partzuergoko hezitzaileei zuzendutako formazio hau eskaini dugu uztaila bitartean. Proiektu honen bitartez, hezkuntza afektibo-emozionaletik hezkidetzak lantzeko proiektuak diseinatu eta ezarri nahi izan ditugu. Horretarako, saio teorikoetan eduki teoriko-praktikoak eta gaiari buruzko literatura akademikoa landu ditugu, besteak beste, hezitzaileek eskuratuko dituzten hezkidetzak ezartzeko gakoak eta jarraibideak, erabakiak hartzeko prozesuak eta praktika kritikoki aztertze konpetentziak. Ondoren, urtean zehar egindako diagnostiko batetik abiatuta, haur-eskolako hezkidetzak-proiektua diseinatu, planifikatu eta martxan jarriko da. 101 hezitzailek parte hartu dute formazio horretan.

Udaberriko ikastaroak

UEUk otsaila eta maiatza bitartean 15 ikastaro eskaini ditu udaberriko eskaintzaren barruan, Eibarren, Gasteizen eta Iruñean. 251 pertsonak parte hartu dute bertan. Denetarikoa gaiak landu dira:



- Euskal Mitologia: kultura ondarea
- Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregeleten bidez
- Lurraldea ulertu eta aztertze beste modu bat. GIS librea eta Geoprosesamendua (QGIS)
- Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan
- Sormen laborategia
- Adimen emozionala (Iruñea)
- Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala (Eibar)
- Argazkigintza digitala: zure reflex kamera ezagutzen (Iruñea)
- Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia (Eibar)
- Bulba duten mutilak eta zakila duten neskek, haurren eta gazteen artean (Iruñea)
- Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen (Gasteiz)
- Coaching Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan
- Haur-psykologia: gaurko haurrak eorkizuneko helduak

- Psikomotrizitatea, mugimendu eta joko librea (Iruñea)
- TELP (taller d'espai lingüístic personal) tailerra (Eibar)

LUHI mahaingurua

“Lurraldea eta Hizkuntza. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa” graduondokoaren barruan, ALTERNATIBAK saioa antolatu dugu apirilaren amaieran UEUren egoitza akademikoan. Begirada osagarrietatik (hirigintza, feminismoa, zientzia, kultura, ekologia) lurraldea eta hizkuntza kudeatzeko proposamenak jarri nahi izan ditugu mahai gainean. Euskaraz bizitzeko aukerak, gogoak eta guneak zabalduko dituzten garapen- eta kudeaketa-ereduak bilatu-partekatu nahi izan ditugu.

IKERGAZTE 2017

180 ikertzaile bildu dira maiatzaren 10, 11 eta 12an NUPen egindako IKERGAZTE kongresuaren bigarren edizioan. 122 komunikazio bildu ditu kongresuak, eta hori kontuan hartuta, UEUK balorazio oso positiboa egin du. Edukiak kalitate handikoak izan dira eta ekarpen handia egin zaio euskarazko produkzio zientifikoari. Horretaz gain, Iruñean bilgune-izaera hori gehiago lortu dugu. Lau hitzaldi nagusi izan ditugu: “A Journey into the World of Galaxies” Laurence Tresse (Lyoneko Astrofisika Ikerketa Zentroko zuzendaria); “Katedralaren eraikuntza” Jose Ramon Etxebarria (UPV/EHUko irakasle eta ikertzailea, UEUKidea); “Bizitza eta karrera ikerkuntzan: Nire esperientzia” Arkaitz Carracedo (CIC BioGUNEko Onkologia Molekularra ikerketa-taldeko burua) eta Elin Haf Gruffydd Jones (Aberystwyth Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea).

Udako Ikastaroak: #ELKAR EKIN

2017an UEUK 35 jarduera antolatu ditu udan. Jaso ditugun ikastaro proposamenak, berriz, ia 100 izan dira.

Iñaki Alegria UEUKo zuzendariak hitz hauek esan ditu udakoen aurkezpenean:

IKERGAZTE kongresuaren oihartzunak oraindik irauten duelarik aurkezten ditugu aurtengo ikastaroak, ELKAR EKIN lelopean. UEU ez litzateke

posible izango elkarlanik gabe. Gure izaeran dago elkargune izatea, eta udako ikastaroek ere hori islatzen dute. Ikastaro hauek auzolanean antolatzen ditugu pertsona eta erakundeekin, eta elkarlan horretatik ekiten diegu proiektu berriei, jakintza berriei. Eta horregatik, beste urte batez, bere curriculum profesionala zein pertsonala aberastu nahi duen orok izango du tokia gure udako ikastaroetan.

lazko arrakastari eutsi eta azken urteetako partaidetza handiena izan dugu bertan: 599 parte-hartzaile.



“Ingurune digitalaren ikerketak Euskal Herrian” jardunaldia

Udako ikastaroak Bilbon abiatu dira, “Euskarazko on-line eskaintza unibertsitatean: egoera eta erronkak” jardunaldiarekin. UEUren ildo estrategikoarekin bat egiten duen jardunaldi horren helburuak hauek izan dira:

- Euskal Herrian Interneten eta IKTen gaineko ikerketa-zentro baten beharra jendarteratu eta indartzea.
- Euskal Herriko zein atzerriko Interneten inguruko zentroyen esperientziak ezagutzea.
- Unibertsitateak, administrazioak eta enpresak elkarlanean jartzeko aukeraz hausnartzea.

Jardunaldian Victoria Nash-ek parte hartu du, Oxford Internet Institutetako zuzendaria, bai eta Euskal Herriko unibertsitate desberdinetako eta administrazio eta euskararen inguruko beste hainbat ordezkari ere.

UEUren ikasturtearen hasiera

Irailaren 28an UEUK 2017/2018 ikasturteko irekiera-ekitaldia egin du Eibarren, Ikastetxe Nagusian. Bertan, Iñaki Alegriak, UEUKo zuzendariak, ikasturte honetako helburuak hiru direla adierazi du:

- On-line unibertsitatea martxan jartzea.
- UPV/EHUren atxikitako zentroaren diseinua egitea.
- IKERGAZTE 2017 antolatzea.
- MoodleMoot 2017 antolatzea.
- UZTAROREN 100. zenbakia argitaratzea.
- ARTIZARRA proiektua martxan jartzea.

Hitzaldi nagusia Agustin Arrieta Urtizberek, idazle, irakasle eta filosofoak eskaini du: “Zientzien, arteen eta humanitateen arteko lankidetzaren garrantziak”.

Hitzaldiaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz berriro dugun lorategia estreinatu dugu. Espazio hori, Ikastetxe Nagusiko gainontzekoak bezala, bazkide guztiek erabili dezakete.

UEUK 3 Berezko Titulu sustatu ditu 2017/2018 ikasturtean

UEUK euskarazko 3 Berezko Titulu sustatu ditu 2017/2018 ikasturtean UPV/EHUren eskaintzaren barne. UEUren ildo estrategiko nagusietako bat da goi-mailako formakuntzaren euskarazko

eskaintza sustatzea, euskal gizartearen formazio- eta hizkuntza-beharrei erantzuteko eta Euskal Unibertsitatearen ildo indartzeko asmoz.

- IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan (2. edizioa)
- Lurraldea eta Hizkuntza. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (2. edizioa)
- Itzulpengintza eta teknologia (6. edizioa)

Udazkeneko ikastaroak

UEUK iraila eta azaroa bitartean 22 ikastaro eskaini ditu udazkeneko eskaintzaren barruan, Eibarren, Iruñean eta Azpeitian. 297 pertsonak parte hartu dute bertan:

ON-LINE

- Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala
- Kolorezko zenbakiak. Matematika lantzen erregeleten bidez
- Moodle-n irakaskuntza eraginkorra nola
- Nola hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan
- Norberaren PLEa osatuz: lan akademikoak eta talde-lanak errazteko baliabide teknologikoak
- R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan



- Tribuaren berbak sekuentzia didaktikoak gelan erabiltzeko jarraibideak

Ikasgelako eskaintza: Eibar, Iruñea eta Azpeitia

- Adimen emozionala ikasgelan (Iruñea)
- Argazki kontakizuna. Istorioak garatzeko estrategiak (Azpeitia)
- Argazkigintza digitala: edizioa (Iruñea)
- Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia (Iruñea)
- Euskal paisaiak 2050: Eibarko erronkak aztertuz lurralde zabalerako aukerak sortzeko (Eibar)
- Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak (Eibar)
- Gaitasun sortzaileari ateak irekitzen (Azpeitia)
- Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan (Eibar)
- Jende aurrean hitz egin. Aurkezpenetan entrenamendu trinkoa (Iruñea)
- Larreko eskolatik. Musika beste era batera irakasteko proposamena (Eibar)
- Nerabeekiko lana irakaskuntzan (Iruñea)
- Prozedura feministak: ezagutza, ikerketa eta herrigintza (Eibar)
- Psikomotrizitatea, mugimendu eta jolas librea (Iruñea)
- Sexuaren inguruan begirada hausnartua (Iruñea)
- "Arkitekturan, euskaraz?" II. Topaketa (Eibar)

"Nafar Estatuaren historia (VIII.-XVI. mendeak)" ikastaroa

Euskokultur Fundazioak, UEUren laguntzarekin, "Nafar Estatuaren Historia (VIII-XVI mendeak)" ikastaroa antolatu du iraila-abendua bitartean. Nafarroa Estatu subiranoa zeneko garaia aztertu da ikastaroan, Orreagako gatazkatik 1512ko konkistara arte.

2017ko MoodleMoot Euskadi UEUk antolatu du

Moodle-ren erabiltzaileen esperientziak trukatzeko gunea da jardunaldi hau. Munduan zehar hainbat tokitan egiten da eta aurtengo #Mooteu17 edizioa

UEUk antolatu du Gasteizen, urriaren 20an. Bertan 70 pertsonak parte hartu dute. UEUk urteak daramatza unibertsitatearen zein etengabeko prestakuntzaren alorrean eta ibilbide luzea du alorreko on-line eskaintzan. Horregatik, aurtengo edizioa unibertsitate-mailako zein etengabeko prestakuntzaren alorreko on-line irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan zentratu da, nahiz eta beste hezkuntza-etapek ere zeresana izan. Hauek izan dira finkatu ditugun helburuak:

- Moodle-ren erabiltzaileen esperientziak



- partekatzea.
- On-line unibertsitatea: egungo egoera aztertzea.
- Unibertsitateko ikaskuntza formala eta informala uztartzeko aukerez hausnarketa bultzatzea.
- Hezkuntza-teknologiak aurrez aurreko unibertsitateari egindako ekarpenak aztertzea.
- Etengabeko prestakuntza eta on-line metodologiaren harreman estua aztertzea eta indartzea.

Geogebra-ren erabiltzaileen I. topaketa

Azaroaren 4an Geogebra erabiltzaileen I. topaketa antolatu dugu Iruñean, NUPekin elkarlanean. UEUk GeoGebra-ren erabiltzaileentzako ikastaroak antolatu ditu azken urteetan. Horrez gain, bere baitan hartzen du GeoGebra Institutuak Euskal

Herrian duen egoitza. Softwarearen euskarazko bertsioaren ardura ere badu. GeoGebrak erabiltzaile ugari dituen arren, komunitatea sakabanaturik dago, eta horregatik antolatu dugu jardunaldi hau.

"Geomatika eta Inteligentzia Espaziala 2017" jardunaldia

UEUk eta GISLANek "Geomatika eta Inteligentzia Espaziala 2017" jardunaldia antolatu dugu azaroan, Donostiako Tabakalera. GIS akronimoarekin ezagutu ohi dena izan du jardunaldi honek mintzagai. Topaketa honen bidez datu-nahaspila informazio bihurtu eta berau hiritarren zerbitzura jartzeko teknologia badagoela ezagutarazi nahi izan dute antolatzaileek. Izan ere, informazio espaziala prozesatu eta zenbait parametroren arabera ustiatzeko gaitasunak ematen du aukera hori. Egunerokoaren kudeaketan leku nabarmena hartzen ari den teknologiaren oraina eta geroa aztertuko dituzte. Topaketa arrakastatsua izan da, bertan 60 pertsonak parte hartu baitute.

PREST_GARA

Eusko Jaurlaritzaren Prest_Gara programak irakasleen etengabeko prestakuntza lantzen du. UEUk aurtan 13 ikastaro eman ditu bertan. Horretarako urtero deialdia zabaltzen dugu gure sarea baliatuz eta urtetik urtera jasotzen ditugun proposamenak gero eta gehiago dira. 254 irakaslek parte hartu dute ikastaro hauetan.



"Bullyingaren mugak gainditzen" jardunaldia

Azaroaren amaieran "Bullyingaren mugak gainditzen" jardunaldia antolatu dugu Azpeitiko Udalak eta UEUk elkarlanean. Jardunaldi horretan, bullying

gaiaren inguruan lan egiten duten agenteak bildu nahi izan ditugu, komunitate moduan gai honetan nola eragin dezakegun hausnartzeko. Horretarako, gure abiapuntua bullying eta cyberbullyingaren definizioak eta prebalentzia izan dira. Hori oinarri hartuta, gure komunitateko agente bakoitzak bere ekarpenak partekatu ditu eta diskurtso amankomun bat eraikitzen ahalegindu gara, kontuan hartuz momentuko errealitatea. Topaketa 80 adituk hartu dute parte.

#Kafetapintxo 2. topaketa: sarean zientzia dastatzen

2016. urtean burutu genuen #KafeTaPintxo 1. edizioa Arabako Campusean, UPV/EHUko Arabako Euskara Zuzendaritzarekin elkarlanean. Orduko helburuari jarraipena emanez, aurtan Arabako Campusean 20 ikertzaile euskaldun bildu ditugu sareari forma ematen hasteko.

Argitalpengintza

10 liburu berri

UEUk unibertsitate-mailako testugintzan erreferente izaten jarraitzen du. Aurten 10 liburu argitaratu ditugu:

- *Zientiaren argi-itzalak*
- *II. IKERGAZTE. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bildumak*
- *Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak*
- *GERO euskara xumean*
- *Ikerkuntza Operatiboari begirada praktikoa ematen*
- *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*
- *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*
- *Kartzela genero-erakunde bezala: bereizkeriak, erresistentziak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean*

- *Irakaspen sozioekonomikoak Eskozia eta Kataluniako prozesuetatik*
- *Kalkulua. Ariketa ebatiak*

UZTARO aldizkariaren 100. zenbakia

UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu (100-103), tartean, 100. zenbakia. Hori ospatzeko zenbaki berezia ateratzeaz gain (100+), ekitaldi soziala antolatu dugu martxoan Bilboko Kafe Antzokian. Ekitaldian, Jokin Apalategi Begiristain UZTARO aldizkariaren zuzendariak bere kargua Gidor Bilbaoren esku utzi du, eta horietaz gain, Maria Gonzalez Gorosarri irakasle-ikertzaileak, Presagana & Lagunak musika-taldeak eta Anartz Ormaza Ugalde dantzariak (eta UEUren Arkitektura sailburuak) parte hartu dute, Ane Sarasua idazkari nagusia anfitrioi izan dutelarik. UZTAROn urte hauetan guztietan parte hartu duten 100 bat lagun bildu ditu ekitaldiak.



ALDIRI aldizkaria

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu:

- Aldiri 29. Suburbia
- Aldiri 30. Generoa eraiki!
- Aldiri 31. Parametrikoki
- Aldiri 32. Lurralde eta hizkuntza

OSAGAIZ aldizkaria jaio da

UEUK eta OEEK OSAGAIZ Osasun Zientzien aldizkari elektronikoa jarri dugu martxan. Osasunarekin erlazioaturiko ikerkuntza mota guztiak hartzen ditu barne. Izan ere, aldizkariak osasun arloko euskal komunitate zientifikoak eginiko aurkuntza zientifikoaren transferentzia-tresna izatea du xede. 2017an bi zenbaki kaleratu ditugu.

UEUK bere DOI zenbakia erregistratu du

DOI (*Digital Object Identifier*) sarean dauden edukiak modu automatizatuan identifikatzeko eta trukatzeko sistema da. UEUK bere DOI zenbaki propioa erregistratu du eta gure aldizkarietako artikuluetan erabiltzen hasi gara. Artikulu zientifikoetara zenbaki zehatza emanez, Interneten bidez era erraz batean edonork aurkitzeko bidea ematen du. DOIa ez da aldatzen denboraren ondorioz: artikulua leku berri batean kokatuko balitz ere, informazioa berbera izango litzateke. DOIak katalogo, biltegi edo bilatzaileen arteko elkarlan eta eragingarritasunean laguntzen du, eta haren erabilerak argitalpen zientifikoaren ikusgarritasuna areagotzen du.

Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak

UEUK liburugintzako deialdia egin du ekainean. Deialdi horren xedea euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea da, eta edukien kalitatea bermatuko duen bide eraginkorra proposatzea. Deialdira euskarazko unibertsitate-liburu amaituak aurkeztu ahal izan dira, euskaraz sorturikoak nahiz euskaratuak (euskaraz sorturikoak izan dute lehentasuna). 4 proposamen jaso ditugu. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, UEUK unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsaren deialdia egin du.

Poltsa bakoitzaren iraupena gehienez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 1.000 eurokoa. Jakintza-alor guztietara irekita dagoen deialdia da. Irabazleak hauek izan dira:

1. **Geometria eta Estatistika Lehen Hezkuntzako Irakasleentzat** (Jaione Abaurrea, Aitzol Lasa)
2. **Lanabes bioinformatikoak natura- eta osasun-zientzietan** (Koldo Garcia eta Irati Romero)
3. **Lurraldearen subjektu politikoa. Plangintza lurraldetasunaren eraikuntza-tresna gisa** (Ula Irutetagoiena)

Buruxkak liburutegi digitala

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua UEUK argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoan unibertsitario euskaldunei eskaintzea da, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. 2017an zehar, edukiak on-line jartzeaz gain, gure liburu eta artikuluen egileei elkarrizketak egin dizkiegu bi asterik behin: Agustin Arrieta, Patxi Salaberri, Bakarne Altonaga, Maialen Aranguren, Aintzane Rincón, Anartz ormaza, Leire Milikua, Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea eta Ibon Manterola, besteak beste.

SARAKo azokan egon gara

Urtero bezala, Sarako azokan egon gara apirilean gure argitalpenak ezagutzera emateko asmoz.

**Jose Ramon Etxebarriaren omenezko liburua martxan**

UEUK Jose Ramon Etxebarria fisikari, ingeniari, irakasle, testu-zuzentzaile eta UEUKidearen omenezko liburu bat argitaratu nahi du 2018an, eta bertan parte hartzeko gonbita luzatu diegu bazkide eta gertukoei. Artikulu zientifikoek eta gorazarrekoek osatuko dute argitalpena, eta deialdia oso arrakastatsua izan da.

Durangoko Azoka #52DA

52. edizioa izan da Durangokoa, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. Azoka euskarazko produkzio

idatzian nahiz diskogintzan erreferentziala da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzea baino areago UEU eta haren lana ezagutaraztea da gure helburua azokan. Betiko moduan, liburu-egileek, UEUKideek eta lantaldeak bete dituzte txandak. Era berean, aurtun lehen aldiz bi libururen aurkezpenak egin ditugu: Festak, genero-harremanak eta feminismoa eta "Irakaspen sozioekonomikoak Eskozia eta Kataluniako prozesuetatik".



Informazio- eta komunikazio-teknologiak

ARTIZARRA

UEUK sare sozial tekniko-profesionala abian jarri du urte amaierarako: ARTIZARRA. INGUMA datu-basean oinarritzen da eta LinkedIn sare profesionala zein Google Scholar, ORCID edo Research Gate ikertzaileen guneak ditu inspirazio-iturri.

Komunitate zientifiko-tekniko euskalduna ezagutaraztea eta ikertzaile zein profesionalen saretzean laguntzea da haren helburu nagusia. Hainbat funtzionaltasun daude bertan:

- Ikertzailearen edo profesionalaren profila ikusteko aukera.
- Foroa: galdera-erantzunak zein eztabaidak bideratzeko.
- Lagunen/lankideen kudeaketa egiteko aukera.

Unibertsitatea.net ataria

Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak, eta hamabostero, atariko Zitzu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarrizketatzen jarraitzen dugu. Hainbat dira elkarrizketatu ditugun ikertzaileak: Begoña Altuna, Gotzone Hervás, Nagore Elu, Beñat Garaio, Ania Iburguren, Jaione Etxebarria, Amaiur Esnaola, Aratz Ramirez de la Piscina, Garazi Arrula, Olatz Goñi, Idoia Astigarraga, Itziar Urizar eta Nerea Osinalde, besteak beste.

INGUMA datu-basea

INGUMAK 17. urteko ibilbidea egin du, egitasmoa hazten eta aberasten jarraituz. 2017an, besteak beste, 658 egile berriren produkzioa barneratu eta 1.346 erreferentzia katalogatu ditugu, horietatik % 71 idatzizko lanen datuak izan dira. INGUMAn 40.426 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikuluak, liburu-atalak, hitzaldiak, ikastaroak...) ditugu eskura eta 16.250etik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsulta daiteke.

TESIKER

2017an Inguman katalogatutako 677 tesietatik, Tesiker egitasmoaren bitartez, 437 sarean eskuragarri daude Euskarazko Doktorego Tesien Datu Basean elkartuta. Euskaraz egin diren tesien % 64. Egitasmoaren jardunak bi mutur ditu: tesi zaharrak digitalizatzea eta gordailu digitaletako tesiak biltzea. Azken urtean 14 tesi digitalizatu eta gordailuetatik 44 tesi bildu dira.

Euskarabildua #6 - 2017 edizioa

Azaroan antolatu dute jardunaldi hau Ametzagaiñak, Argiak eta iametzak, eta UEU laguntzailea izan da. "Teknologia aurreratuak marketin eta komunikazio esparruan" izenburupean egin da aurtengo jardunaldia. Urtez urte hazi egiten ari den errealitate honen ezaugarriak zein diren eta euskaraz zer leku izango duen jakitea garrantzitsua da, baita Euskal Herriko gizartea osatzen dugunok zer-nolako etorkizunari aurre egiteko prestatu behar dugun ere: ezagutzea zein diren erronkak, arriskuak eta aldaketa potentzialak gure ohituretan eta bizimoduan. Besteak beste, honako teknologia hauek jorratu dira jardunaldietan: adimen artifiziala, gauzen Internet, errealitate areagotua, errealitate birtuala eta Big Data. Komunikazio- eta marketinga zentratu dugu teknologia horien aplikazioa. Presagana & Lagunak musika-taldeak eta Anartz Ormaza Ugalde dantzariak (eta UEUren Arkitektura sailburuak) parte hartu dute, Ane Sarasua idazkari nagusia anfitrioi izan dutelarik. UZTAROn urte hauetan guztietan parte hartu duten 100 bat lagun bildu ditu ekitaldiak.

Bilbon

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T (00 34) 94 679 05 46
F (00 34) 94 479 30 39
ldazkaritza@ueu.eus

Baionan

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

Eibarren

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T (00 34) 943 82 14 26
F (00 34) 943 82 06 16
markeskoa@ueu.eus

Iruñean

Joaquin Beunza 13, behe
31014 Iruñea
T (00 34) 948 36 25 63
F (00 94) 948 38 46 59
nafarroa@ueu.eus